

JUSTIZIA MINISTERIOA

5401 *Martxoaren 5eko 355/2004 ERREGE DEKRETUA, etxeko indarkeriaren biktimen babeserako Erregistro zentrala arautzen duena.*

Etxeko indarkeriaren biktimen babes agindua arautzen duen uztailaren 31ko 27/2003 Legeak, familia esparruan buruturiko arau-hauste penalen aurrean babes tresna berri bat txertatzen du gure ordenamendu juridikoan, bere arrazoiak azalpenak adierazten duen bezala, bere ezaugarria babes eta tutoretza tresna ezberdinak bateratzea delarik, halako moldez non «instrukzio epaitegiaren aurrean bideraturiko prozedura judizial azkar eta erraz baten bidez, biktimak babes estatutu integral bat eskuratzeko aukera izan dezan, babes estatutu integral horrek bere baitan, modu koordinatuan, izaera zibil eta penaleko kautela-neurriak biltzen dituelarik», eta Administrazio publikoei tutoretza tresna ezberdinak aktibatzea ahalbidetu diezaion.

Uztailaren 31ko 27/2003 Legeak Prozedura Kriminaleko Legean txertatu zuen 544 hiru. artikuluko berriak, bere 10. atalean, etxeko indarkeriaren biktimen babeserako Erregistro zentralan babes agindua erregistratzea aurreikusten du, xede horretarako uztailaren 31ko 27/2003 Legearen lehenengo xedapen gehigarriak «Justizia Ministerioaren proposamenari jarraituz, eta Botere Judizialeko Kontseilu Orokorra eta Datuen Babeserako Agentzia entzun ostean, Gobernuak etxeko indarkeriaren biktimen babeserako Erregistro zentralaren antolakuntzaren inguruko beharrezko arauzko xedapenak ebatziko dituela» ezartzen du, «eta baita bere funtsen inskripzio eta deuseztapen erregimenaren inguruko eta bertan dagoen informaziorako sarbidearen inguruko arauzko xedapen egokiak ere, beti ere bere konfidentziasuna bermatuz».

Babes agindu berrian txertatzen diren kautela-neurrien eraginkortasuna erregistro zentral bakarra izateak ahalbidetzen du, erregistro zentral horretan ebazpenetan adosturiko zigor eta neurri guztiak, eta baita mota honetako arau-hausteagatik erruztatu beraren aurrean izapidetzen diren prozedura penaletan adosturiko kautela-neurri eta babes aginduak ere, jasota egon behar direlarik, bai erasoan aurrean biktimaren babes fisikorako ebatzi badira eta bai biktima ustezko erasotzailearekin lotzen duen familiako zein guraso eta seme-alaba arteko egoera juridikoa arautzeko ebatzi badira.

Helburu honekin, errege dekretu honek etxeko indarkeriaren biktimen babeserako Erregistro zentralaren antolakuntza eta edukia arautzen ditu, eta baita inskripzio, baliogabetze eta kontsulta prozedurak ere. Aspektu honetan, kontuan izan beharra dago datuen prozesamendua babes neurrien hasiera bateko bereizketa baten bidez sistematizatzen dela: kautela izaerako babes neurriok izapidetzen ari den prozedura batean ala epai irmo batean adostu direnaren arabera, kasu batean eta bestean beraien erregimen juridikoa ezberdina baita.

Lehenengoei dagokienez, kautela-neurri edo babes neurri baten oharra hartzeak dagokion erreferentziazko prozedura penalaren informazioaren lanketa eskatzen du, azken finean, oraindik azken epairik ez izatearen egoeratik ondorioztatzen baita harturiko neurriaren iraupena bera.

Bigarreni dagokienean, erruztatuen eta auzi-iheslarien Erregistro zentrallean inskribatzen den informazio berriaren eta etxeko indarkeriaren biktimen babeserako Erregistro zentralako datuen arteko elkarrekotasun zehatza ziurtatzeko beharizanak inskripzio eta balio gabetze sistema bateratzearen konponbidea defendatzea dakar, bateratze hau kondena oharrak etxeko indarkeriaren biktimen babeserako Erregistro zentraletik erruztatuen eta auzi-iheslarien Erregistro zentralera telematikoki igorritz burutu behar delarik.

Kasu bietan, idazkari judizialaren ardurapean geratzen da (jarduera judizialean duen fede-emaile publiko izaeradun gisa) etxeko indarkeriaren biktimen babeserako Erregistro zentrallean inskribatu behar den informazioaren berri emateko funtsezko eginkizuna, era honetan, erregistroaren edukiari kaudimen juridiko handiena eta konfidentzialtasuna emanez, eta hiritarren eta delituaren biktimen eskubideak bermatuz.

Halaber, errege dekretu honetan, xedapen gehigarri baten bidez, dagozkien organo judizialeko idazkari judizialen eta gizarte-babesaren eskumena duten Administrazio publikoen arteko komunikazio sistema ere arautzen da (sistema honen bidez lehenengok bigarreni informazioa igortzen diotelarik), komunikazio sistema hau uztailearen 31ko 27/2003 Legeak txertatutako, eta arestian aipaturiko, Prozedura Kriminaleko Legearen 544 hiru. artikuluko 8. atalak aurreikusten du.

Hori dela eta, Justizia Ministerioaren proposamenari jarraituz eta Administrazio Publikoetako Ministroaren onarpena jaso ostean, Estatuko Kontseiluarekin bat etorritik eta Ministro Kontseiluak 2004ko martxoaren 5eko batzarrean eginiko deliberazioaren ostean, honako hau

XEDATU DUT:

1. artikulua. *Helburua*

Errege dekretu honen helburua etxeko indarkeriaren biktimen babes agindua arautzen duen uztailearen 31ko 27/2003 Legean aurreikusitako etxeko indarkeriaren biktimen babeserako Erregistro zentralaren antolakuntza sortu eta arautzea da, eta baita erregistro honen edukietan dauden datuen oharpen, kontsulta eta balio gabetze erregimena sortu eta arautzea ere.

2. artikulua. *Erregistroaren izaera eta antolakuntza.*

1. Etxeko indarkeriaren biktimen babeserako Erregistro zentralak etxeko indarkeriagatik prozedura penaletan delitu edo faltengatik ezarritako zigor eta segurtasun neurrien inguruko eta Kode Penaleko 173.2 artikuluan aipaturiko pertsonaren baten kontra izapidetzen ari diren prozedura penaletan adosturiko kautela-neurri eta babes aginduen inguruko informazio sistema bat eratzen du.

2. Etxeko indarkeriaren biktimen babeserako Erregistro zentralaren helburu bakarra familia prozedurez arduratzen diren ordena penaleko organo judizialei, Ministerio Fiskalari, Polizia Judizialari eta ordena zibileko organo judizialei kausa penalen eta zibilen izapiderako beharrezkoa den informazioa ahalbidetzea da, eta baita aipaturiko biktimen babeserako neurriak hartzeko, aldatzeko, exekutatzeko eta euron segimendurako beharrezkoa den informazioa ahalbidetzea ere.

3. Etxeko indarkeriaren biktimen babeserako Erregistro zentralak lurralde nazional guztia barne hartzen du eta bere kudeaketa Justiziako Estatu Idazkaritzari dagokio, Justizia Administrazioaren Modernizaziorako Zuzendaritza Orokorraren bidez.

4. Sarbide, zuzenketa eta balio gabetze eskubideak, eta baita etxeko indarkeriaren biktimen babeserako Erregistro zentrallean dauden datuen segurtasun neurriak ere, Izaera Pertsonaleko Datuen Babeserako abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan eta beronen xedapen gehigarrietan ezarritakoek zuzenduko dituzte.

3. artikulua. *Erregistroaren eta babes neurrien arduraduna.*

1. Etxeko indarkeriaren biktimen babeserako Erregistro zentralaren arduraduna, Justizia Administrazioaren Modernizaziorako Zuzendaritza Orokorrera atxikia, bere kontrolaren, antolakuntzaren eta kudeaketaren erantzulea izango da. Ondorengo artikuluan araututako informazioaren transmisioan arintasuna bermatzeko beharrezkoak diren neurriak hartuko ditu, eta baita Erregistro zentrallean dauden datuen osotasuna, konfidentzialtasuna eta eskuragarritasuna bermatzeko beharrezkoak diren neurriak ere.

2. Erregistro zentralako arduradunak, igorritako informazio telematikoen oharpen eta egiaztatze eginkizunak hartuko ditu bere gain eta datuen egiazkotasuna eta osotasuna bermatuko ditu, eraginkortasun juridiko osoarekin.

4. artikulua. *Etxeko indarkeriaren biktimen babeserako Erregistro zentrallean dagoen informazioa.*

1. Etxeko indarkeriaren biktimen babeserako Erregistro zentrallean delitu edo faltengatik ebazpenetan ezarritako zigor eta segurtasun neurrien inguruko datuak eta izapidetzen ari diren prozedura penaletan adosturiko kautela-neurri eta babes aginduen inguruko datuak jasoko dira, baldin eta neurriok jurisdikzio penaleko epaile eta tribunalek Kode Penaleko 173.2 artikuluan aipaturiko pertsonaren baten kontra buruturiko kausaren batean hartuak izan badira.

2. Epaia irmo deklaraturikoan, aurreko atalean aipaturiko kausa penalen batengatik ezarritako zigor eta segurtasun neurrien inguruan, Erregistro zentrallean eginiko oharpenetan ondoko datu hauek adieraziko dira:

a) Epaia ebatzi zuen organo judiziala, ebazpenaren data, prozedura mota eta prozeduraren identifikazio zenbaki orokorra (IZO).

b) Epaia ertain irimotasuna deklaratzeko duen organo judiziala, beronen data eta kausa betearazlearen zenbakia.

c) Zigortuaren izena eta bizilekuak, seme-alabatasuna, jaioteguna eta nortasun agiri nazionalaren zenbakia, atzerritarraren identifikazio zenbakia, bizileku txartela edo pasaporteak.

d) Biktimaren izena eta bizilekuak, seme-alabatasuna, jaioteguna eta nortasun agiri nazionalaren zenbakia, atzerritarraren identifikazio zenbakia, bizileku txartela edo pasaporteak.

e) Burututako delitu edota falta.

f) Ezarritako zigor nagusia edo erantsia, bere iraupena edo zenbatekoa, adosturiko neurriak eta euron iraupena.

g) Epaia edo auto irmoan adostu ahal izan den zigorraren aldaketa, ezarritako ordezko zigor edo neurria adieraziz.

h) Adostu ahal izan den zigorraren exekuzio etendura, epea adieraziz, eta bere kasuan adosten diren betebeharrak adieraziz.

3. Izapidetzen ari diren prozeduren inguruan, eta 1. atalean aipaturiko kausaren batengatik ebaztitako kautela-neurri edo babes neurrien inguruan, Erregistro zentrallean egiten diren oharpenek ondoko informazio hau izango dute:

a) Izapidea egiten den organo judiziala, prozedura mota, prozedura arazoitzen duen delitu edo falta, abiarazte-autoaren edo berrabiarazteko ebazpenaren data eta prozeduraren identifikazio zenbaki orokorra (IZO).

b) Inputatuaren izena eta bizilekuak, seme-alabatasuna, jaioteguna eta nortasun agiri nazionalaren zenbakia, atzerritarraren identifikazio zenbakia, bizileku txartela edo pasaporteak.

c) Biktimaren izena eta bizilekuak, seme-alabatasuna, jaioteguna eta nortasun agiri nazionalaren zenbakia, atzerritarraren identifikazio zenbakia, bizileku txartela edo pasaportearen eta inputatuarekin duen harremana.

d) Adostutako babes agindua edo kautela-neurria, agindua edo neurria hartu deneko data, babes aginduak barne hartzen dituen neurri zibil eta penalak, bere kasuan euron edukia, esparrua eta iraupena adieraziz.

e) Ebatzitako epaiaren data, hau irmoa ez denean, bere kasuan deklaratuak delitu edo faltak, ezarritako zigorrak edo segurtasun neurriak eta euron iraupena edo zenbatekoa adieraziz.

5. artikulua. *Etxeko indarkeriaren biktimen babeserako Erregistro zentralari epai irmoan ezarritako zigorraren eta segurtasun neurrien inguruko datuen berri ematea.*

1. Idazkari judizialek, dagokion epaiaren irmotasun deklarazioaren osteko 24 orduko epearen barruan, 1.a) eranskinean adierazitako zigor oharraren eredu telematikoa igorriko dute etxeko indarkeriaren biktimen babeserako Erregistro zentralera, bertan oharpena egin dezaten.

Halaber, Polizia Judizialari euren exekuzio eta segimendurako ezarritako zigor eta segurtasun neurrien berri berehala emateko, idazkari judizialek Polizia Judizialari aldi berean kondena oharraren eredu telematikoaren kopia inprimatua igorriko diote.

2. Etxeko indarkeriaren biktimen babeserako Erregistro zentralerako arduradunak erruztatuen eta auzi-iheslariaren Erregistro zentralari ofizioz emango dio aurreko artikuluko 1. atalean aipaturiko kausa penalen batean ebatzitako epai irmoen berri beraien oharpena egiten duen egun berean, aurreko artikuluko 2. atalak aipatzen dituen datuak adieraziz.

6. artikulua. *Erregistro zentralari izapidetzen ari diren prozedura penalen, kautela-neurrien eta babes aginduen inguruko datuen berri ematea. Idazkari judizialen eginkizunak.*

1. Idazkari judizialak emango dio Erregistro zentralari izapidetzen ari diren prozeduren inguruko, kautela-neurrien inguruko eta babes aginduen inguruko datuen berri (erregistroan beraien oharpena egin behar delarik), 4.3. a), d) eta e) artikuluan kokatzen den epaiaren bat ebatzi osteko 24 orduko epearen barruan.

2. Erregistro zentralera dagokion idazkari judizialak igorriko dituen datuak telematikoki. Horretarako, Justizia Ministerioak II.a) eranskin gisa ezarritako ohar telematikoa idazkari judizialena soil soilik den erantzukizunpean beteko da, idazkari judizialek egiaztatuko dutelarik oharraren edukiaren zehaztasuna eta beraiek elektronikoki igorriko dutelarik etxeko indarkeriaren biktimen babeserako Erregistro zentralera.

Halaber, Polizia Judizialari euren exekuzio eta segimendurako ezarritako kautela-neurri eta babes aginduen berri berehala emateko, idazkari judizialek, aldi berean, ohar telematikoaren kopia inprimatua igorriko diote Polizia Judizialari.

3. Esku hartzen duen idazkari judizialaren nortasuna jasota geratuko da beti, eta baita igorritako datuen osotasuna eta konfidentziasuna ere.

7. artikulua. *Informazioaren euskarria eta komunikazioen erregimena.*

1. Erregistroan jasota egon behar den informazio guztia biltegitzeko eta adierazteko (berme juridikoarekin eta zalantzarik gabeko moduan) euskarri informatiko egokietan egongo dira datuak, informazioa berreskuratzeko erraztasunarekin eta beronen kontserbazio eta transmisio bermearekin.

2. Erregistro zentralera eginiko datuen transmisioa eta Erregistroan dagoen informaziorako sarbidea errege dekretu honetan eta berau garatzen duten xedapen administratiboetan araututako prozedura telematikoki bidez burutuko dira.

3. Aurreko atalean ezarritako ezarri arren, zirkunstantzia teknikoek transmisio telematikoa eragozten dutenean, etxeko indarkeriaren biktimen babeserako Erregistro zentralera egin beharreko datu transmisioa erregistroko arduradunari I.b) eta II.b) eranskinetan adierazitako ereduak bete eta igorri burutu ahal izango da. Kasu honetan, 5.1 artikulua, bigarren paragrafoan, eta 6.2 artikulua, bigarren paragrafoan, aipatzen duten Polizia Judizialari eman beharreko jakinarazpena, eredu hauen kopiak igorri burutuko da.

4. Jurisdikzio penaleko organo judizialei babesa ematen dieten komunitate autonomoek kudeatutako komunikazio elektronikoen sareak Erregistro zentralarekin konektatuta egongo dira, sare osaturiko ingurune batean, aipaturiko komunikazioen konfidentziasuna eta egiazkotasuna bermatzen duelarik.

8. artikulua. *Erregistro zentralerako dagoen informaziora sarbidea izatea.*

1. Erregistro zentralerako dagoen informaziora sarbidea izango dute: familia prozeduraren batez arduratzen diren ordena penaleko organo judizialek, Ministerio Fiskalak eta ordena zibileko organo judizialek, esku hartzen duten prozeduretan edo jardueretan informazio hori erabil dezaten.

Halaber, Polizia Judizialak ere informazio honetara sarbidea izango du Erregistro zentralerako dagoen informaziora sarbidea duten portaeren jarraipen eta segimenduen inguruan burutzea eskatu zaien jardueren garapenerako.

2. Dagokion organo judizialeko idazkari judizialak, fiskaltza ezberdinetako kide diren fiskalek eta xedatzen diren Polizia Judizialeko kideek telematikoki burutuko dute Erregistro zentralerako datuetarako sarbidea.

Erregistro zentralera sartzen diren pertsonen nortasunak, kontsultaturiko datuak eta kontsultaren arrazoia jasota geratuko dira beti.

3. Estatuko Administrazio Orokorrek erregistroan dauden datuen inguruko estatistikak egin ahal izango ditu, informazioan aipamen pertsonal oro saihestuz eta Izaera Pertsonaleko Datuen Babeserako abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan eta bere xedapen gehigarrietan ezarritakoak kontuan izanik.

9. artikulua. *Epai irmoan ezarritako zigor eta segurtasun neurrien inguruko datuen deuseztapena.*

Etxeko indarkeriaren biktimen babeserako Erregistro zentralerako arduradunak zigor epai penal irmoen inguruko oharpenak deuseztatuko ditu erruztatuen eta auzi-iheslariaren Erregistro zentralerako dagozkien aurrekari penalak deuseztatu dituztenaren ziurtasuna duenean.

Horretarako, erruztatuen eta auzi-iheslariaren Erregistro zentralerako 4.1 artikulua aipatzen dituen prozeduretako baten ebatzitako zigor epai penal irmoak deuseztatzen dituztenean ofizioz eman behar du horren berri, datuon deuseztapena burutzen duen egun berean.

10. artikulua. *Izapidetzen ari diren prozeduren, kautela-neurrien eta babes aginduen inguruko datuen deuseztapena.*

1. Etxeko indarkeriaren biktimen babeserako Erregistro zentralaren arduradunak izapidetzen ari den prozedura beraren inguruko datuak deuseztatzeari ekingo dio dagokien jurisdikzio penaleko organoetako idazkari judizialek artxibatze edo largespen autoaren berri edota absoluzio epai bidezko prozeduraren amaieraren berri ematen diotenean.

2. Halaber, izapidetzen ari den beste prozedura baten oharpena burutzea eragin duen prozedura baten metaketak eta beste epaitegi baten mesedetarako inhibizioak deuseztapena eragingo dute, Erregistro zentralako arduradunak dagokien helmugako prozeduraren oharpena egiaztatzen duen unean.

Era berean, Erregistro zentralako arduradunak izapidetzen ari den prozedura baten inguruko datuak deuseztatzeari ekingo dio prozeduran eman den zigor epai irmoaren oharpena erregistroan jasota dagoenean.

3. Etxeko indarkeriaren biktimen babeserako Erregistro zentralaren arduradunak kautela-neurrien edo babes neurrien inguruko oharpenak deuseztatzeari ekingo dio, izapidetzen ari den prozeduraren inskripzioa bere horretan utziz, dagokien jurisdikzio penaleko organoetako idazkari judizialek, 1. atalean ezarritako epearen barruan, berauen amaieraren edo iraunaldia bukatzearen (edozein delarik kausa) berri ematen diotenean.

8. artikuluan ezarritakoen arabera eskaturiko informazioak deuseztatutako kautela-neurrien eta babes neurrien existentzia adieraziko du beti, baldin eta ez bada neurriok adostu ziren prozeduraren oharpena deuseztatu.

4. Kode Penaleko 131. artikuluan ezarritako epeen barruan euren inguruko oharpenetan aldaketarik egon ez den prozedurei dagokienean, Erregistro zentralako arduraduna dagokion organo judizialeko idazkari judizialarengana zuzenduko da prozedura hauen egoera prozesala egiaztatzeko xedearekin, eta honek emaniko informazioak horrela eskatuz gero dagozkion oharpenak deuseztatuko ditu.

5. Idazkari judizialak Erregistro zentralako arduradunari berehala eman beharko dio artikulua honetan aipaturiko ebazpen judizialen inguruko dagokion oharren berri, behin ebazpenak irmotzat deklaritzen dituztenean.

6. Interesdunak edozein momentutan eskatu ahal izango dio erregistroko arduradunari etxeko indarkeriaren biktimen babeserako Erregistro zentralan jasotako datuen deuseztapena edo zuzenketa. Balizko kasu honetan, erregistroko arduradunak aurreko ataletan ezarritakoaren arabera jokatu du.

Xedapen gehigarri bakarra. *Gizarte-babes alorrean eskumenak dituzten Administrazio publikoei babes aginduen berri ematea.*

1. Epaitegietako eta tribunaletako idazkariek hartzen diren etxeko indarkeriaren biktimen babes aginduen eta hauen eskaeren berri emango diote, testigantza oso bidez, dagokion komunitate autonomoak izendaturiko koordinazio puntuari (edo puntuari), berauek, biktima hauekin lotuta, gizarte-babes alorrean eskumena duten zentro, unitate, organismo eta erakundeei ebazpen hauen inguruko jakinarazpena emateko kanal bakar gisa jokatu dutelarik, Prozedura Kriminaleko Legearen 544 hiru. artikuluko 8. atalean ezarritakoaren arabera.

Idazkari judizialaren jakinarazpena neurria hartu osteko 24 orduko epearen barruan igorri beharko da, bide telematikoz edo elektronikoz edo, hau ezinezkoa baldin bada, fax edo presazko posta bidez.

2. Izendaturiko koordinazio puntuak informazioa zentralizatzen duen zentroa, unitatea, organismoa edo erakundea, bere posta helbidea eta helbide elektronikoa, telefono eta fax zenbakiak, ordutegia eta bertako arduradun diren pertsonak adieraziko ditu. Probintzia bat baino gehiago duten komunitate autonomoen kasuan, probintzia bakoitzerako koordinazio puntu jakin bat identifikatu ahal izango da.

3. Botere Judizialeko Kontseilu Orokorrak gaurkoturiko harremana mantenduko du izendaturiko koordinazio puntuarekin eta identifikazio hori bere osotasunean eta beronen aldaketa edo eguneraketekin igorriko die Justizia Ministerioari, Lan eta Gizarte-arazoetarako Ministerioari eta Barne-arazoetarako Ministerioari, eta baita Estatuko Fiskaltza Orokorrari eta Justizia Auzitegi Nagusiari, dekanotzei eta dagokien esparru autonomikoko instrukzio epailei ere.

Lehenengo xedapen iragankorra. *Igorpen telematikoen ezarpen mailakatu.*

1. Erregistro zentralera datuak bitarteko telematikoz igortzea izango da aipaturiko informazio hori Erregistro zentralera bidaltzeko kanal bakar eta derrigorrezkoa Justizia Administrazioen erregistroetako segurtasun informatikoko protokolo orokorra indarrean sartu ostean, berau hiru hilabeteko epean ministro agindu bidez onartuko delarik, 7.3 artikuluan ezarritakoari kalterik egin barik.

2. Aipaturiko Segurtasun informatikoko protokolo hori indarrean sartu bitartean, etxeko indarkeriaren biktimen babeserako Erregistro zentralera igorri beharreko datuak idatziz bidaliko dira, idazkari judizialak erregistroko arduradunari idatziko diolarik eta, horretarako, I.b) eta II.b) eranskin gisa ageri diren ereduak bete beharko direlarik. Idazkari judizialen idazki hauen kudeaketa eta etxeko indarkeriaren biktimen babeserako Erregistro zentralak egin beharreko berauen oharpena erregistroko arduradunak burutuko ditu, Justizia Administrazioaren Modernizaziorako Zuzendaritza Orokorraren sostengu administratiboarekin.

Kasu honetan, 5.1 artikulua, bigarren paragrafoan, eta 6.2 artikulua, bigarren paragrafoan, aipatzen duten Polizia Judizialari eman beharreko jakinarazpena, eredu hauen kopiak igorri burutuko da.

Bigarren xedapen iragankorra. *Errege dekretu hau indarrean sartu aurretiko babes aginduen inguruko datuak sartzeari.*

Uztailaren 31ko 27/2003 Legearen babespean ebatzitako babes aginduen inguruko datuak, Justizia Ministeriora errege dekretu hau indarrean sartu aurretik igorritakoak, Prozedura Kriminaleko Legearen 544 hiru. artikuluko 10. atalean ezarritakoaren arabera, Erregistro zentralen sartuko dira.

Azken xedapen bakarra. *Garapenerako eskumenak.*

Justizia Ministroari ematen zaio errege dekretu honen garapen eta exekuziorako beharrezko diren xedapen administratiboak eta neurriak hartzeko eskumena, eta baita eranskinetan ageri diren eredu gaurkotzea onartzeko eskumena ere.

Madriren, 2004ko martxoaren 5ean.

JUAN CARLOS E.

Justizia Ministroa,
JOSÉ MARÍA MICHAVILA NÚÑEZ

I. ERANSKINA

Epai irmoan ezarritako zigor eta segurtasun neurrien inguruko datuak igortzeko erediaa) Eredu telematiko

JUSTIZIA MINISTERIOA

ETXEKO INDARKERIAREN BIKTIMEN BABESERAKO ERREGISTRO ZENTRALA

ZIGOR EPAIAREN OHARPENA			
PROZEDURAREN DATUAK			
EIBBEZ erref.:	Erreg. zentralera igorritako data:		
Prozedura:	IZO:		
Organo judiziala:	Abiarazte data:		
Prozedura arrazoitzen duen delitua:			
Organo ebazlea:			
Prozedura:	Epaiaren data:	Irmotasunaren data:	
Babes agindurik eskatu zen?	Ukatua izan da?		
Beteazpen-prozedura:			
KONDENATUA			
Izena:			
NAN:	Sexua:	Gurasoak:	
Jaioteguna:	Jaiolekua:	Nazionalitatea:	
Bizilekuak:	Zbk.:	Pisua:	Telefonoa:
BIKTIMA			
Izena:			
NAN:	Sexua:	Gurasoak:	
Jaioteguna:	Jaiolekua:	Nazionalitatea:	
Bizilekuak:	Zbk.:	Pisua:	Telefonoa:
Ahaidetasuna:	Bizikidetzatza:		
ZIGORRAK			
Delitua:			
Mota:	Zigorra:		
Espetxe zentroa:	Urteak:	Hilabeteak:	Egunak:
Konplimenduaren hasiera data:			
Egoera	Data:	Iraupena:	
Mota:	Zigorra:		
Espetxe zentroa:	Urteak:	Hilabeteak:	Egunak:
Konplimenduaren hasiera data:			
Egoera	Data:	Iraupena:	
Mota:	Zigorra:		
Espetxe zentroa:	Urteak:	Hilabeteak:	Egunak:
Konplimenduaren hasiera data:			
Egoera	Data:	Iraupena:	
Sinadura:	Organo judizialaren zigilua		
.....-ak.			



JUSTIZIA MINISTERIOA

b) Paperezko eredia

ETXEKO INDARKERIAREN BIKTIMEN BABESERAKO ERREGISTRO ZENTRALA

EBATZITAKO PROZEDUREN OHARPENA

PROZEDURAREN DATUAK		
Organo izapidegilea:	Herria:	Probintzia:
Auziaren IZO:	Prozedura mota:	Zenbakia / urtea:
Prozedura arrazoitzen duen delitua / falta:	Abiarazte data:	
Organo ebazlea:	Herria	Probintzia
Prozedura mota:	Zenbakia / urtea:	
Epaiaren data:	Irrotasunaren data:	
Organo betearazlea:	Herria:	Probintzia:
Betearazpen-prozeduraren zenbakia / urtea:		

KONDENATUA				
Lehenengo abizena		Bigarren abizena		
Izena	Sexua (G/E)	Aitaren izena	Amaren izena	
Jaioteguna	Jaiolekua	Jaioleku probintzia	Nazionalitatea	
NAN/Pasaporte/Bizileku txartela/AIZ	Telefonoa	Bizilekua(k)	Zbk.	Pisua
Herria	Posta-kodea	Probintzia	Herrialdea	

BIKTIMA				
Lehenengo abizena		Bigarren abizena		
Izena	Sexua (G/E)	Aitaren izena	Amaren izena	
Jaioteguna	Jaiolekua	Jaioleku probintzia	Nazionalitatea	
NAN/Pasaporte/Bizileku txartela/AIZ	Telefonoa	Bizilekua(k)	Zbk.	Pisua
Herria	Posta-kodea	Probintzia	Herrialdea	
Salatuarekin edo inputatuarekin duen ahaidetasun edo afektibitate harremana				

KONDENATUARI EZARRITAKO ZIGORRAK

DELITUA	ZIGORRA	Mota (nagusia / erantsia / segurtasun neurria)	
		Konplimenduaren hasiera data	
		Iraupena (egunak-hilabeteak-urteak)	
		Zenbatekoa	
		Espetxe zentroa	
		Egoera	
		Egoeraren data	
	ZIGORRAREN ETENDURATIK ERATORRITAKO ORDEZKO ZIGORRA / BETEBEHARRA	Etenduraren / ordezkapenaren iraupena	
		Baliogabetze data	

DELITUA	ZIGORRA	Mota (nagusia / erantsia / segurtasun neurria)	
		Konplimenduaren hasiera data	
		Iraupena (egunak-hilabeteak-urteak)	
		Zenbatekoa	
		Espetxe zentroa	
		Egoera	
		Egoeraren data	
	ZIGORRAREN ETENDURATIK ERATORRITAKO ORDEZKO ZIGORRA / BETEBEHARRA	Etenduraren / ordezkapenaren iraupena	
		Baliogabetze data	

Sinadura:-ak.	Organo judicialaren zigilua
------------------------	-----------------------------

II. ERANSKINA

Izapidetzen ari diren prozedura penalen, kautela-neurrien eta babes aginduen inguruko datuak igortzeko eredia

a) Eredu telematikoa

JUSTIZIA MINISTERIOA



ETXEKO INDARKERIAREN BIKTIMEN BABESERAKO ERREGISTRO ZENTRALA

IZAPIDETZEN ARI DEN PROZEDURAREN OHARPENA		
PROZEDURAREN DATUAK		
EIBBEZ erref.:	Erreg. zentralera igorritako data:	
Prozedura:	IZO:	
Organo judiziala:		
Prozedura arrazoitzen duen delitua:		
Abiarazte data:	Berrabiarazte data:	
Baliogabetze data:	Arrazoa:	
Babes agindurik eskatu zen?	Ukatua izan da?	
Jatorria:		
SALATUA EDO INPUTATUA		
Izena:		
NAN:	Sexua:	Gurasoak:
Jaioteguna:	Jaiolekua:	Nazionalitatea:
Bizilekuak:	Zbk.:	Pisua: Telefonoa:
BIKTIMA		
Izena:		
NAN:	Sexua:	Gurasoak:
Jaioteguna:	Jaiolekua:	Nazionalitatea:
Bizilekuak:	Zbk.:	Pisua: Telefonoa:
Ahaidetasuna:	Bizikidetzatza:	
BABES AGINDUA		
KAUTELA-NEURRI PENALAK		
Nori eragiten dio:		
Neurriak:		
Ebazpen data:	Konplimentuaren hasiera data:	Baliogabetze data:
NEURRI ZIBILAK		
Nori eragiten dio:		
Neurriak:		
Ebazpen data:	Konplimentuaren hasiera data:	Baliogabetze data:
Sinadura:	Organo judizialaren zigilua	
.....-ak.		

a. Paperezko eredia

JUSTIZIA MINISTERIOA

ETXEKO INDARKERIAREN BIKTIMEN BABESERAKO ERREGISTRO ZENTRALA

PROZEDURA PENALEN ABIARAZTE, BERRABIARAZTE ETA BALIOGABETZE OHARRA ETA NEURRIEN OHARPEN ETA BALIOGABETZEAK

PROZEDURAREN DATUAK			
Organo izapidegilea:	Herria:	Probintzia:	
Auziaren IZO:	Prozedura mota:	Zenbakia/urtea:	
Organo ebazlea:	Herria:	Probintzia:	
Prozedura mota:			Zenbakia/urtea:
Abiarazte data:	Berrabiarazte data:	Baliogabetze data:	Baliogabetzearen arrazoia:
Prozedura arrazoitzen duen delitu / falta			
Jatorrizko organoa (Inhibizioa / metatzea)		Herria	Probintzia
Prozedura mota		Zenbakia/urtea	

SALATUA EDO KONDENATUA				
Lehenengo abizena			Bigarren abizena	
Izena	Sexua (G/E)	Aitaren izena	Amaren izena	
Jaioteguna	Jaiolekua	Jaioleku probintzia	Nazionalitatea	
NAN/Pasaportea/Bizileku txartela/AIZ	Telefonoa	Bizilekua(k)	Zbk.	Pisua
Herria	Posta-kodea	Probintzia	Herrialdea	

BIKTIMA				
Lehenengo abizena			Bigarren abizena	
Izena	Sexua (G/E)	Aitaren izena	Amaren izena	
Jaioteguna	Jaiolekua	Jaioleku probintzia	Nazionalitatea	
NAN/Pasaportea/Bizileku txartela/AIZ	Telefonoa	Bizilekua(k)	Zbk.	Pisua
Herria	Posta-kodea	Probintzia	Herrialdea	
Salatuarekin edo inputatuarekin duen ahaidetasun edo afektibitate harremana				

BABES AGINDUA	Data:	KAUTELA-NEURRIAK	Data:
NEURRI ZIBILAK			
Neurriak eta ezaugarriak	Konplimenduaren hasiera data	Iraupena	Baliogabetze data
NEURRI PENALAK			
Neurriak eta ezaugarriak	Konplimenduaren hasiera data	Iraupena	Baliogabetze data
Sinadura:-ak.	Organo judicialaren zigilua		